

BIZIKLIK!

Diru-iturriak

Zenbat eta nola ordaintzeko prest dago gure bezeroa eskaintzen ari garen produktuaren edo zerbitzuaren truke?

Gure bezeroak 350€ ordaindu beharko lituzke bizikletengatik eta 300€ eliptikoarengatik.

Gure diru-sarrera nagusia aktiboen salmenta da. Bizikleta elektrikoak dira gure aktiboak. Berez, produktuaren ordainketa bakarrekoa da. Hala ere, eskaera oso handia bada (20 bizikleta baino gehiagokoa) epeka ordaintzeko aukera emango dugu, bezeroari gure produktua erosteko erraztasun handia eskainiz.

- **Prezioa:**

Produktuaren prezioa finkoa da. Hala ere, eskaera handia (20 bizikleta baino gehiago) eginez gero, %7ko deskontua aplikatuko zaio.

- **Enpresa sortzeko diru-sarrerak:**

Enpresa sortzeko, bakoitzak aurreztuta duen diruaren zati bat inbertituko du (bakoitzak %25a jarritz). Gainera, bankuari maileguak eskatuko dizkiegu ere, lortzen ditugun etekinekin ordainduko ditugunak aurrerago.

